

KIROLAK: BESAIDEREN ESKI KANPAINA

Arrasate

P R E S S

2001.eko
urtarrilaren 12n
624. zenb.



Ukrainatik Arrasatera

Chernobylgo istripuaren erruz

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE



IKUSPUNTU BERRI BAT.



NISSAN ALMERA *Tino* BERRIA. Mundu guztiak gauzak modu berean ikusten ez dituelako, Nissan Almera Tino berriak ikuspuntu guztiak hartzen ditu bere baitan. Umeak, adibidez, jolas-parke batean bezala, izango dira Tinoan: irakurtzeko eta marrazteko mahai tolesgarriak, era guztietako panpinak gordetzeko lurreko kutxa ateratzekoa, liburuentzako sareak, arkatzak eta baita 12v.-tako entxufea ere bideo-jokoekin jolas egin dezaten. Nissan Almera Tino berria. Txikientzat inoiz egin den gauzarik handiena.



5 URTEKO GARANTIA
www.nissan-almeratino.com

1.8-KO MOTOREA
COMFORT
2.592.000 pta.*

2.2 DI MOTOREA
COMFORT
2.792.000 pta.*

2.0 Cv MOTOREA
AMBIENCE
3.162.000 pta.*



GIDATU ETA GOZATU

urteurrenak

Urontziko rocka

■ 47. zenb.
(1990-1-5)



Gazteria batzor-deak Epeleko urontzia herriko musika taldeen-tzako txukuntzea erabaki zuen.

Instalazio

elektrikoa egiteko 358.324 pezetako aurrekontua egin zen eta burnigintza metalikoak zatiketa lanak egiteko, berriz 333.096.

Diru eskarien aurka

■ 47. zenb.
(1990-1-5)

EAJ, EA, PSOE eta EE alderdiek osatzen zuten bloke demokratikoak mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran, preso eta iheslarien senideei laguntzeko taldeak dendariei egindako diru-eskariak salatuz. Azkenean, 13 boto alde eta lau aurka (HB), zera onartu zen: merkataria sufritzen ari diren presioaren aurrean ezezkorik handiena

adieraztea, bai eta laguntza eta elkartzuna adieraztea ere, eta beldur-zez laguntzera beharturik izan ez daitezen deia zabaltzea. Era berean, udala presioa eta beldurra instituzionalizatzearen aurka agertzen dela.

Andoni Zubizarreta

■ 47. zenb.
(1990-1-5)



«Athletic eta Real bezalako taldeen ezaugarri nagusia, bai lehen eta bai orain, jokatzeko estilo oso

definitua dutela izango litzateke. Aurten, zarata handia egon da fitxaketak zirela eta ez zirela; baina, jokalaria aldatu arren, beti antzeko jokoa erakusten dute, ona, trinkoa. Emaitza hobe edo txarragoekin, baina urtero goian».

besteek esana



Nire profila ez da zinemazalea. Zerikusi gehiago daukat zine amerikarrarekin gozatzen duen jende multzoarekin edo hainbat balore lañtzen dituen kalitatezko zinema europarra ikusten duenarekin. Agian, gertuago nago zinemara joateko 700 pezeta gastatzen dituen 20 eta 25 urte arteko gazte horiengandik, zinemazale batengandik baino.

Aukeraketa batzordea oso zinemazalea da eta ni telebistaren arlotik nator. Dena dela, uste dut badakidala jendeak zer nahi duen eta kontrapisua egingo dut zinemaldiko jakintsu horien artean. Zinemaldian guztientzako zinema dago».

Mikel Etxagibel

DV

(2001-1-9)



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera eta Leire Kortabarria. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martínez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Berazibar (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Maddi Truxuelo. Asteburutako berriemailea: Lorea Agiriano. Banaketa ardura-duna: Naiara Odiozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Getu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maria Kortazar.



Arrasateko Udalerria
laguntzaz



Gipuzkoako Foru
Aldundia laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako
Kultura
Sailaren laguntzaz

aurkibidea

- Lehen begiratua 3
- Txutxumutxuak 10/13
- Asteko hitzorduak 4
- Zaldibar areto futbola. 15
- Inkesta 5
- Aurrez aurre Alex Bornik 16/17
- Astearen errebasoa. 6
- Orain eta hemen 7/9
- Kirolak jokoan. 19/21
- Eskola-kirola. 22
- Kulturaren txokoa 22/23
- Uhinetan barrena 25
- Foto zaharra 26



ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igalatorria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatera 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa

Arrasate

Astelehenetik
ostiralera 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 068

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Larunbata Igandea
19:00 (elebiduna) 09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia
(euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata 10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna) 11:00 meza nagusia
(euskaraz)
Igandea 12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz) 19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata Igandea
19:00 (elebiduna) 11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata Igandea
19:00 (elebiduna) 10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata Igandea
19:00 (elebiduna) 10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron
(euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera
eta larunbata Igandea
19:00 (gaztelaniaz) 12:00 (gaztelaniaz)


otoitz-topaketarako autobusak

Guztion artean, bakea, guztion alde leloa-
rekin otoitz-topaketa egingo da Gasteizen,
eta Arrasateko autobusa irtengo da 9:45etan
Musakolatik eta Garibaitik. Arrentiara

10:45etan iritsiko dira, eta handik kilome-
tro bat oinez egin beharko da. Txartelak Zaba-
leta drogerian daude salgai, 1.200 pezetan.

barrakak doan

Urtarrilaren 12an, egubakoitzez,
17:00etatik 20:00etara bitarte-
an, Garibain dauden barraketan
bidaia doan izango dituzte ume-
ek, Ibai-Artek babestuta.



eskulanak eta dantza

Eskulan ikastaroa eskaintzen du Arrasate-
ko Ekin Emakumeak elkarteak. Urtarrilaren
9tik apirilaren 10era izango da, martitze-
nero, 15:00etan eta 17:30etan. Bestalde,
dantza ikastaroa antolatu du elkarte berak,
urtarrilaren 10etik apirilaren 4ra, 15:00eta-
tik 16:30era. Bietarako izen ematea elkar-
tean egin beharko da, edo 943 77 12 28
telefonoan.



GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Egubakoitza, 12**
• Zabala, Zarugalde
- Zapatua, 13**
• Ruiz, Maalako Errabala
- Domeka, 14**
• Morales, San Andres
- Astelehena, 15**
• Azkoaga, Ferrerias
- Martitzena, 16**
• Azkoaga, Iturriotz
- Eguaztena, 17**
• Korkuera, Musakola
- Eguena, 18**
• Irizar, Erguin

Logotipo lehiaketa

Arrasateko Emakumeen Kontseiluak lanean dihardu 1995etik
Arrasateko gizon eta emakumeen aukera berdintasunaren alde

- Sari nagusia: 100.000 pta. aurkeztutako
- Akzesita: 25.000 pta. lan onnarentzat.
- Epea: 2001eko urtarrilaren 31.

Oinarriak Arrasateko udaleko Emakume Sailean.

Tel.: 943 79 09 00 / 943 79 41 39

emakume@arrasate-mondragon.net

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■

Laguntzailea:



Beherapenetan eskaintzen diren produktuen kalitatea betiko bera da?

Behin baino gehiagotan entzun dugu beherapenetan produktuen kalitatea eskasagoa izaten dela



Ernesto Iglesias
(68 urte)
Erretiratua

Kalitatea bera da, baina zenbaitetan gezurrak esaten digute: salneurrian, adibidez. Lehen "hainbeste" balio zuen eta orain beste "horrenbeste"...



Jose Antonio Leibar
(70 urte)
Erretiratua

Nire ustez, kalitatea bera izaten da. Noizbait, akaso, egingo dute iruzurren bat edo beste, baina jeneralean kalitate berbera da.



Loli del Canto
(59 urte)
Langilea

Nire ustez, betiko dendetan kalitatea bera izaten da, baina saltoki handietan beste produktu batzuk jartzen dituzte beherapenetan.



Ane Ilunbe
(18 urte)
Ikaslea

Uste dut produktua bera izaten dela.




Eugenio Uribarren
(42 urte)
Langilea

Nik uste dut antzekoa izango dela. Legez, behintzat, horrela izan beharko litzateke.



Vicenta Casado
(37 urte)
Etxekoadrea

Bai, kalitate bera da. Nik beherapenetan erosi izan dut eta beti kalitate bera eman didate.



Ibai Castro
(22 urte)
Ikaslea

Nik uste dut kalitatea berbera izaten dela; niri halaxe iruditu izan zait orain arte.



Nieves Cubillo
(53 urte)
Langilea

Gordeta dutena ateratzen dute; balio handirik ez duten gauzak. Onak diren gauzak berdin-berdin ordaintzen dira beti.

GORKA

ILEAPAINDEGIA

LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Asteleheneran itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferreries, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78



Gesalibar auzoa • Tel.: 943 79 10 35

USTEAK USTE

Milurte berria, ja!

Milurte berria hasi dugula, eta zer? Aldaketarik sumatu duzue, ala? Ez duzue ezer berezirik espero, ezta?

Ezer ez da aldatuko, gure partetik ezer ipintzen ez badugu. Eta urtarilla, justu, hilabeterik txarrena da. Kontu korrontek gradu baxuenean daude, eta gainera, merkealdiekin bete behar dugu. Horrez gain, Gabonetako gehiegikeria guztien ondorioak jasan behar ditu gure osasunak. Gehiegi jan dugu (zortea, guk); edan ere, gehiegi, ziur; eta beste-lakorik hartzen duenak ere ziur ez duela gutxi hartu (badakigu horrelako egunetan gehiegikeriak arlo guztietara zabaltzen direla).

Ba horixe, hilabete guztia pasatuko dugula gureak egin dugula sentitzen, eta artean, bestelakorik egiteko gogorik ere ez dugu izango. Bitartean, munduak birak ematen segitzen duela diote, gurekin batera, jakina. Baina, gu... betiko antzera. Ezertarako gogorik gabe.

Milurteko berria arazoak konpontzeko irtenbideak proposatzeko aukera izan beharko litzateke eta hori, behintzat, sinistu beharko genuke.

Marijo Deogracias

astea bi hitzetan

■ **Goiena, sendotzen**

Eskoriatzako eta Gatzagako udalek eta Goiena komunikazio zerbitzuak elkarlanerako hitzarmenak sinatu zituzten 2000ko azken astean. Euskararen alde konpromisoa sendotzea eta elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuten.

Horrez gain, burokrazia kontuak lotu ondoren, Antzuolako Udalak ere sinatu du hitzarmen bera.

■ **Fagor Arrasate**

Fagor kooperatiban zorigaitzoko dabilta azkenaldian. Pasa den egunean Fagor Ederlanen heriotz istripua izan ondoren, egubakoitz goizaldean Fagor Arrasateko biltokiko pareta erori zen. Han lanean ari zirenek ezusteko galanta hartu zuten, baina, zorionez, ez zitzaien ezertxo ere gertatu eta kalte materialak ere

oso txikiak izan ziren. Horra orain sei hilabete egin zuten.

■ **Ume asko Txikilandian**

Lau egunean 2.000 ume inguru pasatu dira Txikilandiatik; egunean, 500 umetik gora. Mondragoetik eta inguruko herrietatik etorritako umeek zazpi gunetan makina bat jolasez gozatzeko aukera izan dute. Hori bai, XII. Txikilandia honetan jolaslekurik erakargarriena igerileku girotua izan da. Igerileku handia puzgarriz bete zuten eta hantxe ibili ziren neska-mutikoak jolasean.

Urtero moduan, Txatxilipurdi elkarteak antolatu du Gabon parkea; elkarte horretako 40 bat begirale aritu dira lanean.

■ **Zuzendaritza berria**

Al-Andalus taldeak ohiko

biltzar orokorra egin zuen domekan, eta 2000. urtearen balorazio positiboa egin zuen. Iaz 32 ekitaldi egin zituzten eta guztiek ere arrakasta itzela izan zuten Al-Andaluseko presidentearen esanetan. Ekintza hauetaz gain, beste zortzi ere egin zituzten Andaluziako Etxe-en federazioarekin.

Horrekin batera, datoren urterako aurrekontua eta hainbat ekitaldi finkatu eta zuzendaritza batzordea ere berri zuten. Ondorioz, zazpi arduradun berri izango ditu Al-Andalus elkarteak: besteak beste, Enrique Perez izango da lehendakariorde berria.

Hil honen amaieran hasiko da Al-Andalusek 2001erako prestatu duen programa. Hain justu, urtarilaren 27rako koplajaila antolatu dute, lehenengo aldiz.



■ **Ehune irabazle**

Hirugarren urtez jarraian, Ehune denda izan da Gabonetako eskaiparate lehiaketako irabazlea.

Bigarren saria Altuna lurrindegiak erman du eta hirugarrena, berriz, Tamayo paperdendak.

Epaimahaia udaleko eta Ibai Arteko ordezkariak osatu dute, eta abenduren erdi aldetik erregeak pasa arte eduki dituzte erakuslehoak apainduta.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Seber Altube itxuratzen

Aurrez ikusitakoa betetzeaz gain, Alde Zaharra oinezkoendako egokitzeko lanak aurreratuta doaz. Gabonetan atsedenaldea egin ondoren, Arbolapeta itxuratuta utzi eta Seber Altube plazan hasi dira zoladura egiten. Eguaztenean seinale bat jarri zuten, inguru hori guztia bizitokigunea dela iragartzen duena, hain zuzen; beraz, horrek esan nahi du hemendik aurrera automobileraz sartuz gero, ezin izango dela orduko 20 kilometroko lastertasuna gainditu, eta gainera, oinezkoek lehentasuna izango dute.

Hil honen bukaera aldean jarriko dituzte automobilerako erdigunerako sarrera mugatuko duten piboteak. Hortaz, behin betiko itxita geratuko da Gazteluondotik hasi eta Garibai kalerainoko Alde Zaharra. Udaltzaingoak erabaki beharko du, lan guztiak bukatu ondoren, kale horietako zirkulazioa zelan bideratu.



ZUHAITZAK LASTER

Orain Seber Altube plaza zolatzaren hasi dira. Bi hilabetean lanak bukatzea espero dute; horrela, azkenengo fasea faltako litzateke lanak egiteko. Orduantxe, martxo inguruan, Maisu Arano plazarekin hasiko dira.

Baina, bien bitartean, herriarren artean hainbeste ikamika eragin dituen zuhaitzak jarriko dituzte, bai Seberren, bai eta Maisu Aranon ere.

Seber Altuben lehen zego-

en haritza, hiru astigar eta bi platanondo ipiniko dituzte. Eta Maisu Aranon, orain daudenak han jarraituko dute eta kendu ziren hiru zuhaitzen orde, bi lizar eta bi platanondo ipiniko dituzte. Banco Guipuzcoanoren atzealdean, berriz, ging-eko biloba izeneko zuhaitza jarriko dute. Oro har, lan guztiak ekainerako bukatuta egotea aurrez ikusi zuen udalak eta badirudi, epea beteko dutela.

Milurteko lehena

Abenduaren 31n zen jaiotzeko Lide Larrea Uribesalgo, baina atzeratu eta urtarrilaren 2ko 03:30ean jaio zen Arrasateko Eskualde Ospitalean. 2,9 kilorekin etorri zen mundura. Eta noski, gurasoek pozpozik hartu dute bere etorrera. Geuk ere zorionak eman eta zorzea opa dizkiegu hirurei. Ongi etorri, Lide!



Erasoen kontrako mobilizazioak

Azkenaldian ezker abertzalearen kontra egiten ari diren erasoen aurrean, Euskal Herriarrok alderdia gerora abian jartzeko dinamika berri bat eztabaidatzen ari da. Utzi bakean Euskal Herria, subirautea da bakea leloa aukeratu du EHK lan-dinamika berrirako eta egin beharreko ekimenak poliki-poliki kaleztatzen joango da. Edozelan ere, dagoeneko hainbat mobilizazio egitea erabaki du. Horien barruan sartzen da, hain justu, gaur iluntzean Herriko Plazan egindakoa. Izan ere, gaur aztertu ditu Estatuko Auzitegi Nazionalak Ekin, Egin, Xaki eta abarren errekursoak, eta horrexegatik egin dira Euskal Herri osoan Mondragoekoa bezalako protesta ekitaldiak.

Horrez gain, datorren hilaren 27rako manifestazio bat ere deitu du EHK. Donostian izango da eta, betiko moduan, Mondragoetik autobusak irtengo dira; txartelak Irati tabernan jarriko dira salgai.

BATASUNA

Bestalde, abertzaleen artean sortutako Batasuna prozesuak beste batzar bat iragarri du datorren hilaren 13rako.

Gazteluondoko ikastolan izango da, goizeko 10:30etik aurrera.

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**I
L
E
A**

Ferrerias 943 79 87 62

**M
A
R
E
N
A
Z
A**

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Beilatokia egingo da Debagoienean



Oraindik ez dute erabaki non jarriko duten beilatokia.

San Felipe Apostol hileta-zerbitzuak beilatoki edo tanatorioa zabalduko du Arrasaten aurtan. Bailarako lehenengoa izango da. Izan ere, Debagoienean gaur egun ez da horrelako zerbitzurik eskaintzen eta, ondorioz, hilotza etxean eduki nahi ez duenak edo ezin duenak bailaratik kanpo eraman behar du. Gure bailaran dugun gabezia hori beteiko du beilatokiak.

URTEBETE BERBETAN

Urtebete dela hasi ziren harremanetan Mondragoeko Udala eta San Felipe Apostol, Mondragoen beilatokia zabalteko. Eta oraindik data zehatzik ez dagoen arren, San Felipe Apostoleko zuzendari Jesus Mari Arizmendiarririk jakin badaki aurtan zabalduko dela.

Behin beilatokiaren koka-

lekua zein izango den erabakita, Mondragoeko Udalak San Felipe Apostoli emango dio horren kudeaketa eta nahiz eta beilatokia Mondragoen kokatu, Debagoieneko herri guztiei eskainiko zaie zerbitzua.

Mondragoeko Udalak aurtengo udal aurrekontuetan beilatokiarendako diru partidabat bideratzeko asmoa du. Hil honen amaieran jakingo dugu zenbatekoa izango den kopurua.

Behin beilatokia zabaldu eta, San Felipe Apostol hileta-zerbitzuak erraustegi bat eraikitzeke asmoa ere badu. Hori ere aurtan egin nahi du San Felipe Apostolek, baina oraindik guztia erabakitzeke dago. Erraustegia zabalduz gero, Gasteizkoaz eta Deriokoaz gain, inguruko bakarra izango litzateke.

Errehabilitazio zentro berria



Hil honen bukaera aldean bukatuko dituzte lanak.

Eskualde Ospitalean errehabilitazio zerbitzua egokitzten ari dira pasa den abenduaz geroztik. Ospitaleko kudeatzaile Jose Luis Angulok adierazi digunez, orain zoruak ipintzen dabilta, baina lanak zelan doazen ikusita, hil honen amaiera alderako edo otsailaren erdialderako bukatzea espero dute; beraz, laster jarriko dute abian.

60 milioi pasatxoko inbertsioa egingo du Osakidetza zerbitzu berri horretan eta, oro har, orain artekoak zeuzkan gabeziei aurre egitea du xede.

EZINDUENDAKO

Izan ere, Zaldibarko frontoiaren ondoan egon da orain arte ospitaleko errehabilitazio zerbitzua, eta ez ditu gutxieneko baldintzak betetzen. Esaterako, ez du ezinduendako sarrera berezirik,

lekua txikia da eta, deserosoa.

Jose Luis Anguloren esanetan, errehabilitaziorako zerbitzu berria bikoitza izango da lehenengorekin alderatuta, 450 metro koa dro izango ditu eta. Horrez gain, sarrera automobilendako eta oinezkoendako egokituko da; horrela, ezin duak zailtasun barik sartu ahal izango dira.

Era berean, barruko zerbitzuak (kontsultak, gimnasioa, elektroterapia...) bakoitzak bere lekua izango du eta punta-puntako teknologia-dun aparailuak eta makinak erosiko dira.

Horrez gain, profesional gehiagok lan egingo dute.

Eskualdeko Ospitaleko errehabilitazio zerbitzuak Aramaio, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko herritarrei egiten die mesede.

ML
ILE APAINDEGIA
 Alfonso X jakintsua, 1 behea
 (Grupo San Juan)
 Tel.: 943 79 79 65

TTUKUN
 Fotokopiak
 Liburu josteak
 Fotokopiak koloretan
 Planoen kopia
 Offset-a
 Ferrerías, 23 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 46 62

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tel/Faxa: 943 79 01 82

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otartetako hotz eta beroak
 Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tel: 943 79 67 76

Deba erreka garbitzen ari dira

Deba ibaiako ertzak garbitzen ari dira egunotan. Eguazteen hasita, Aretxabaleta eta Mondragoe arteko tartea garbitzeari ekin zioten. Ondoren, Mondragoetik Bergarainoko erreka zatia garbitzen aritu dira.

ENBORRAK ETA SASIAK

Enborrak moztu, sasiak kendu eta ibai ezkinak txukuntxukun utzi dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Saila arduratzen da lan hauek egiteaz.

Lan hauekin ibai ertzak garbi daude eta, gainera, uholdeak saihesteko bide bat ere bada.

Emakumeendako ikastaroak



San Andres, Garagartza eta Gesalibar auzoko emakumeendako ekintzak antolatu ditu herriko udaleko Emakume Sailak, urteko lehenengo hiru hilabeterako. Baserri-auzo horietako emakumeen arteko elkar-gunea sendotzea da ekintza hauen helburua, iaz hasitako esperientziarekin jarraituz.

San Andres auzoko emakumeendako eskulan ikastaroa eta erlaxazio lantegia antolatu ditu eta Garagartza eta Gesalibarkoendako, berriz, dantza eta eskulan ikastaroak.

Ikastaroak urtarrilean hasi eta apirilean amaituko dira. Guztira, ia 400.000 pezetako aurrekontua onartu da.

Euskadiko Kutxa

Merkatu berrien hazkundera bilatzeko eta etorkizuneko teknologien erabilera bultzatzeko, 29 bulego berri zabalduko ditu Euskadiko Kutxak 2001-2004. urteen artean. Besteak beste, lehenengo aldiz, Salamancan eta Zamoran.

Diru gehiago

Meatzerrekako Askasibar baserriaren pareko muretea eta Gesalibar auzoko Enusketa baserri parean eta Enusketatik Mendigurenera doan bidean dauden mureteak konpontzeko emandako diru kopurua handitzea erabaki du udalak. Ia hiru milioi pezeta adjudikatu zituen eta orain beste milioi bat pasatxo emango du.

ARRASATE KIROOLAK

Kontzeziño, 8 • Tel.: 943 79 46 12

DESKONTUAK

- Forro polarrak % 30
- Txamarrak % 50
- Txandalak % 30
- Zapatilak % 25

NEGUKO HAMABOSTALDIA

MAPFRE A, TXAPELDUN



4-2 irabazi zion Mapfre A taldeak Jomari Lopez Rekarte sariaren finalean. Hirugarren Mapfre B geratu zen. Mapfreko bi taldeak agertzen dira argazkian, saria jasota. Zorionak, guztiei!

HAUEK BAI BAZKIDEAK HAUEK!



Danok-Bat Elkarteko Ohorezko Bazkideak dituzue argazkian: Jesus Balanzategi, Jose Bolinaga, Santos Zeziaga, Victoriano Egiara, Jose Iñarra, Tomas Iribecampas, Bixente Iturbe, Raimundo Velez de Mendizabal eta Juan Cruz Errasti. Argazkian Jose Mondragon falta da.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebeldun hizkiak



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



• **BERRIA** •
• **ERAGINKORRA** •
• **LASTERRA** •

GORPUTZ TRATAMENDUAK

Zelulitisa • Biguntasuna • Estriak • Bularrak

AURPEGI TRATAMENDUAK

Zimurak • Tonifikazioa • Hidratatzea • Oxigenatzea

CRIOSYSTEM

By

INTÉGRÉE

Zatoz eta galdetu konpromisorik gabe

AG

AMAGARA

Erdiko Kale, 54-behea • Tel.: 943 79 09 09

**ESTETIKAN
MUNDU MAILAKO
ESKLUSIBA**



Piztu zure emozioak

NORKAR-en espazio berriak menperatzeko, ohikoa atzera uzteko, jaiok gara.

Horregatik, MAZDA marka aurkezten dizugu.

Esklusiboaren aldeko dema sendoa, 1931tik, mundu osoan sormen teknologikoari esker ezagutzen den marka japoniarra.

Gainerakoek zirriboratu besterik egin ez dituzten ideiak garaile bihurtu dituen marka, hain zuzen ere, kalitatea zein originaltasuna oinarritzat dituena.

NORKAR-ek zirrara berriak sentiaraziko dizkizun auto-saila jartzen du zure eskura. Aurki ezazu.

MAZDA marka jartzen du zure eskura.

Aurki ezazu.



Mazda Premacy 1.8 16v. Touring
Prezioa: 2.950.000 pzta.*

* B.E.Z., Garraioa eta Ibilgailuen matrikulazio zerga barne.

NORKAR

Zure MAZDA Kontzesionario berria non aurkituko duzun:

IURRETA

Mallabiena, 4
tel: 946 215 640
tel: 946 215 643

ARRASATE

Zigarrola, 1
tel: 943 712 002

ELGOIBAR

Olaso, 23
tel: 943 742 037



Grupo
Nortekar

URTE BERRIA, ASMO BERRIAK



AED-ko Zahar-Berriko partaideak abenduaren 28an elkartu ziren urte eta mende berriari ongietorria egiteko. Aurten, hainbat berri-tasunen artean, Oteizaren lana ikusteko bidaia prestatzeko asmoa dute.

ASTRONAUTA KATEDRALEAN!



Denborarekin bat joan nahi du Salamancako Katedral Berriak, eta Arantxa Alonso mondragoetarrak egiazta-tu zuen hori Salamancara egindako bidaian. Izan ere, XX. mendeko bereizgarri moduan, astronauta zizelatu dute hango paretan.

EUSKAL DEITURAK, ESKURA



IZENAK

Marikita Tambourin

Jose Manuel Pagoaga 'Peixoto' mondragoetarraren emazteak, Marikita Tambourin baxenabartarrak, idatzitako eskuliburua duzue hau, Gatu-zain argitaletxeak kaleratuta. Euskal deituren jatorria, esanahiak eta bitxikeriak aurkituko ditugu bertan.



IZENAK


Iraitz Agirre Aranguren

17 urteko mondragoetar honek Debako Tene Mujika literatura lehiaketan sari bat irabazi du: 18 urtetik beherakoei ematen zaien akzesita, 25.000 pezetakoa, *Keak estalitako oroitzapenak* ipuinarekin, hain zuzen. Lehiaketa horretan sari bat irabazten duen bigarren aldia da. Urruzuno eta Arrasate lehiaketetan ere hainbat sari jaso izan ditu.



ZORIONAK, ESTITXU!

Estibaliz Agirrebeña arrasatear-
rrak Eusko Jaurlaritzak antolatua-
tako Giza-Eskubideak eta Bakea
mural lehiaketako akzesita lortu
zuen, eta aipamen berezia
jasotzera joan zen La Merced
ikastetxeko irakasle eta ikaski-
deekin batera. Zorionak, Estitxu!



Loramendi kirolak

%30

- Forro polarrak
- Prakak
- Txamarrak
- Sudaderak
eta abar

BEHERAPENAK!

Zapatilak

%20-50

San Andresen eta Garibain

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.	
Aurrera Bolie	5	5	0	0	28	5	10	
Komando Alpargat	5	4	0	1	29	19	8	
Katxiporra	5	4	0	1	26	17	8	
Chapime Dribling	5	3	1	1	23	15	7	
Bikain Akademia	5	3	1	1	17	12	7	
Goma 2	5	2	2	1	27	16	6	
IKP	5	3	0	2	21	25	6	
AC Surkos	5	3	0	2	20	19	6	
Serengeti	5	2	2	1	13	16	6	
YK Azkena	5	2	1	2	13	16	6	
Lasagabaster	5	2	1	2	21	18	5	
Kanp. Harrobia	5	2	1	2	15	16	5	
Leya	5	1	2	2	10	12	4	
Betrayer	5	1	0	4	22	28	2	
Txeyenex	5	1	0	4	9	18	2	
Makanaki	5	1	0	4	6	11	2	
The Pippol	5	0	0	5	7	16	0	
AL Ion	5	0	0	5	7	42	0	

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.	
Ettxerat Taberna	5	5	0	0	47	11	10	
Iriztu	5	5	0	0	20	9	10	
KJ Basati	5	4	0	1	31	12	8	
Pep.Insero.com	5	4	0	1	22	13	8	
Irati STS	5	3	1	1	25	12	7	
Usotz Potroak	4	3	0	1	25	4	6	
Fraguel Gol	5	3	0	2	24	21	6	
AT Celaya	4	3	0	1	20	10	6	
Kamasutra	5	3	0	2	19	12	6	
AKTA	5	2	0	3	23	20	4	
EPEK	5	2	0	3	13	21	4	
Full deuplex	4	2	0	2	11	17	4	
Rayo Aldeano	5	1	1	3	19	24	3	
DKB Kobate	5	1	1	3	14	21	3	
Txotx	5	1	1	3	9	17	3	
New Makai	5	1	0	4	9	32	2	
Abocajarro	4	0	0	4	9	29	0	
Alai Gozokiak	4	0	0	4	6	29	0	
Sass T	5	0	0	5	3	35	0	



Hurrengo partidak / 6. jardunaldia

Urtarrilak 13, zapatua

Zaldibar

10:00	Irati STS - AKTA	(Ettxerat)
11:00	Ettxerat - KJ Basati	(AKTA)
12:00	Kanpanzar Harrobia - Aurrera Bolie	(KJ Basati)
13:00	DKB Kobate - Kamasutra	(Aurrera Bolie)
14:00	Bikaian Akademia - Katxiporra	(Kamasutra)
15:00	Betrayer - AC Surkos	(Bikain Akademia)
16:00	AL Ion - serengeti	(AC Surkos)
17:00	EPEH - Fraguel Gol	(Serengeti)
18:00	Dribling - Goma 2	(Fraguel Gol)
19:00	AT celaya - Full Duplex	(Goma 2)

Iturripe A

14:50	IKP - Leya	(Komando Alpargat)
16:00	Komando Alpargat - Makanaki	(IKP)

Epailea

(Ettxerat)
(AKTA)

Iturripe B

14:50	Txeyenex - Lasagabaster
16:00	Iristu - Usotz Potroak

Epailea

(Iristu)
(Txeyenex)

Domeka, 14

Zaldibar

10:50	Rayo Aldeano - Txotx	(Sass T)
12:00	Sass T - Alai Gozokiak	(Rayo Aldeano)
13:00	Abocajarro - Pepelus Insero.com	(Alai Gozokiak)

Epailea

(Sass T)
(Rayo Aldeano)
(Alai Gozokiak)



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ALEX BORNİK (CHERNOBYLGO ISTRIPUAN ZAURITUA)

«Ukrainara bidaltzen b

1986ko apirilaren 26an historiako istripu nuklearrik larriena gertatu zen, Ukrainako Chernobylgo zentral nuklearreko laugarren erreaktoreak ihesaldia izan zueanean. Joan zen hilean betiko itxi zuten zentrala. Baina, 14 urte hauetan hamar milaka hildako eta kontaezineko zaurituak izan dira. Horjetako bat Arrasaten bizi da orain: Alex Bornik, 25 urteko ukrainarra. Istripuaren ondorioz, buruan gutxitasuna du orain Alexek, baina ondo gogoan ditu kontu gordin haiek.

— Zelakoa zen zure bizi-modua Ukrainan?

— Chernobylgo zentral nuklearretik hurbil bizi nintzen, gurasoekin eta arreba-rekin. Aita-amak irakasleak ziren. Baina, jatekorik ezertxo ere ez geneukan, eta sosik ere ez. Horixe da hoberen

gogoratzen dudana, oso gaizki bizi ginela, alegia.

— Istripu nuklearrak zein eragin izan zuen zuregan?

— Pleuresia (giltzurrunak estaltzen dituen ehunaren puzketa) harrapatu nuen horren ondorioz. Ukrainako medikuek ez zidaten bizi itxaropen apurrik ere eman. Han ez zegoen gaitz horretarako tratamendurik. Gainera, ama eta arreba ere gaixotu egin ziren, eta izeba bat hil egin zitzaigun.

— Zelan sortu zen Mon-dragoera etortzeko aukera?

— Amarekin etorri nintzen. Istripuak zauritutako 25 umeren arduradun bezala etorri zen bera, Arrasaten, Bergaran, Gasteizen eta beste hainbat herritan banatzeko. Hasieran, ni ez nentorren hemen geratzeko, baina ezin ninduten bakarrik utzi, eta

nire gaixotasuna ikusita, geratzeko gonbita egin zidaten. Baina, hemen ere inork ez zuen uste bizi iraungo nuenik. Hori orain bi urte izan zen. Ordudanik, Maria Kortazarren familiarekin bizi naiz, Mon-dragoen.


— Zergertatu zen orduan?

— Ingresatu egin ninduten. Hainbat ospitaletan izan nintzen:

hemen, Arrasaten, eta baita Donostian ere; han hilabete egon nintzen. Likidoa atera zidaten eta zuloa hortxe daukat.

— Hobeto zaude orain?

— Bai, askoz hobeto. Dena dela, etengabe jarraitu behar diot gaixotasunari. Noizbehinka, eztulka ibiltzen naiz eta katarroak izaten ditut. Botikak ere hartu behar ditut jarraian.



«Ukrainako medikuek ez zidaten bizi itxaropen apurrik ere eman. Han ez zegoen gaitz horretarako tratamendurik»

anaute, hil egingo naiz»

— Zelakoa da egun arrunt bat zuretzako?

— Mariaren familiak abere denda eta gozotegia ditu, eta horietan lan egiten dut. Gainera, etxeko-lan batzuk ere egiten ditut. Erosketak ekartzten ditut, abereekin jolasten dut, eta Mariarekin eta bere seme-alabekin irtetzen naiz. Oso-osozoz nago. Gaztelan oso gutxi egiten dut, eta euskaraz ezertxo ere ez, baina asko ikasi dut. Gainera, Helduen Heziketa Zentrora joaten naiz, eta denetarik ikasten dut han: idazten, matematikak, hizkuntza, gaztelania...

Laster, euskara ikasten hasi nahi nuke. Horrez gain, hainbat leku ezagutu ditut: Donostia, Bilbo, Gasteiz, Eskoriaza... Hondartzara ere joan izan naiz.

— Zure familiarekin harremanik baduzu?

— Bai, telefonoz egiten dugu berba. Miseria gorrian bizi da gure familia. Amak tiroidea du kaltetuta.

— Etxera bueltatuko zinateke?

— Gurasoak bisitatzer baldin bada bakarrik. Bestela,

ez. Nahiago nuke gurasoak eurak etorriko balira; joan zen udan egon ziren hemen ni ikusten. Ez dut Ukrainara sekula itzuli nahi. Bidaltzen banaute, hil egingo naiz han. Amarekin berbetan izan naizentan esan izan dit, negar batean, berak ere ez duela nahi ni itzultzerik, badakielako zer gertatuko litzaidakeen Ukrainan. Han oso elikadura txarraigago: adibidez, esnerik ere ez dugu. Eta ez nuke gaixotasunerako sendabiderik izango.

— Alde ederra...

— Bai. Hemen oso gustu-

ra nago. Nahi beste jan dezaket. Badakit hozkailura joan eta nahi dudana har dezakedala, ez zaidala faltako. Etorri nintzanean, xurgatuta nengo. Masailtan haragirik gabe nengo.

— Arazorik izan duzu Mondragoen geratzeko?

— Orain arte ez, baina Ukrainara bidaliko nauten beldur naiz. Horregatik, ahalegintan ari gara orain niretzako espainiar hiritartasuna lortzeko, nire amak ere horrela eskatuta. Horrela, hemen gera nintekte betiko. ■

Etxeko lanak eta ardurak gizonen eta emakumeen artean elkartrukatzeko tailerra Arrasaten

Astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:30etara • Urtarrilean hasi eta apirilera arte • Matrikula: 2000 pta.



Emakumeen tailerretan:

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Automobilen mekanika

Izen ematea: Gazte Bulegoan
943 77 00 65 telefonora deituta.
Azkeneko eguna: Urtarrilaren 15a

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA Emakume Salla ■

Gizonen tailerretan:

- Joskintza
- Lisatzea
- Sukaldaritza
- Garbiketa

Animatu eta gogoratu lanek eta ardurek ez dutela sexurik.

Laguntzailea:



ONGI ETORRI 2001


IDEIA FRESKOAK DITUGU

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

XAKEA Nazioarteko laugarrena



Josu Tornay, San Andres xake taldeko jokalaria, laugarren izan zen amateur mailako nazioarteko xake txapelketan. 71 xakelari aritu ziren Iruñean abenduaren 27tik urtarrilaren 6a bitartean, eta guztira, hamar partida jokatu zituzten.

Josu Tornayk kontatu digunez, oso gustura dago laugarren tokiarekin: «Lastima izan da toki bat gorago ez gelditzea, lehenengo hirurek nazioarteko sailkapenerako zuzeneko txartela lortu dute eta; baina hala ere, uste baino hobeto joan zait».


Txapelketa kolonbiar batek irabazi zuen. Hamar partidetik zortzi puntu eta erdi eskuratu zituen kolonbiarrak. Josu Tornayk puntu erdi gutxiago, hau da, zortzi puntu. Eta kontua da bigarren eta hirugarren sailkatuek ere zortzi puntu eskuratu zituztela, baina kan-

poraketa sistema tarteko, Josu Tornay laugarren gelditu zen.

Bestalde, asteburuan ekingo diote berriz ere herriko xakelariak denboraldiari. A taldeak Lazkaon jokatu du.

San Andres Xake taldea bigarrena da sailkapen nagusian eta liderrarengandik, Urnietaarengandik, puntu batera dago. Denboraldia amaitzeko bost txanpa baino ez dira gelditzen.

FUTBOLA Urteko lehenengo garaipena



Mondraren lehen erregionaleko taldeak irabazi egin zuen urteko lehen partida. Elgoibarren aritu ziren Raul Leibaren mutilak, eta aspaldiko partez irabaztea lortu zuten. David Zaitetik, bigarren entrenatzaileak, adierazitakoaren arabera, taldea bikain aritu zen eta lehen zatia 0-0 amaitu zen arren, bigarren

zatian taldea sendoago zelairatu zen eta gailendu egin zen. Azken emaitza 1-3 izan zen.

Zapatuan Atxabalpen arituko dira mondragoetarrak Intxurre taldearen aurka.

SASKIBALOA Igoera aldia



Kenci Arrasateko talde nagusia igotzeko aldia jokatzeko hasi da asteburu honetan. Hamaika talderekin batera arituko da, baina aurreko aldian sailkatutako taldeetako baten aurka jokatu zuten, 16 partida jokatu dituzte, eta ez 18. Taldekoek adierazi digutenez, «igoera aldia irabazitzeko, EBA mailara igotzeko ginateke, baina zaila da eta gure helburua lehenengo zortzien artean geratzea litzateke».

Gaur egun, Kenci Arrasate sailkapeneko 11. tokian dago. Gabonen aurretik sei partidatik bakarrik irabazi zuen

eta zazpi puntu baino ez ditu, liderrak baino bost gutxiago, hain zuzen.

Urte berriko lehenengo partida Bilbon jokatu du Lander Errastiren taldeak, Pais Vasco XXI taldearen aurka, hain justu. Bilbotarrak laugarren dira sailkapenean, mondragoetarengandik hiru puntura.

ESKUBALOA Hasiera kaskarra



Ez zuten ez ondo hasi milurteko berria Arrasate Almen eskubaloi taldekoek. Arrateren aurka aritu ziren eta 24-19 galdu zuten. Gazte mailakoek, bestalde, alde txikiarekin irabazi zuten (21-22) Urola Iri-moren aurka.

Asteburuan kadeteak eta seniorrak etxean arituko dira Elgoibarren eta Donibaneren aurka, hurrenez hurren.

Emaitzak

ESKUBALOA

• Seniorrak:

Arrasate Almen 24 -
Arrasate 19

• Gazteak:

Urola Irimo 21 - Arrasate 22

FUTBOLA

• Lehen erregionala:

Elgoibar 1 - Mondra 3

• 1. gazteak:

Mondra 5 - Mundarron 0

• 2. gazteak:

Mondra 0 - Luberrri 4

• Lehen kadeteak:

San Patrizio 6 - Arrasate 2

• Ohorezko kadeteak:

Real Sociedad 8 - Arrasate 0

• Lehen erregionaleko, neskek:

Eibartarrak 2 - Mondra 0

Jokatzekoak

ESKUBALOA

Isturripen, zapatuan

• **Seniorrak:** Arrasate Almen -
Donibane, 18:00etan

• **Kadeteak:** Arrasate -
Elgoibar, 16:15ean

FUTBOLA

Atxabalpen, zapatuan

• **Lehen erregionala:**
Mondra - Intxurre, 15:45ean

• 2. kadeteak:

Arrasate - Aldapetarrak,
12:00etan

Atxabalpen, domekan

• **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate - Basconia,
15:45ean

• **Lehen erregionaleko, neskek:**

Mondra - Elgoibar,
12:15ean

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

Eskiatzera Besaideren eskutik

Besaide mendizale elkarte-koak asteburuan irtengo dira eskiatzera. Urtarrilaren 13an hasi eta martxoaren 30a arte Formigalera joango dira eskizaleak, asteburu. Baina, eski kanpaina ez da hor bukatuko. Izan ere, apirilean Alpeetara joango dira.

Formigalera joan ohi dira urtero Besaidekoak, eta urtero legez, aurten ere Nievesol hotelean hartu dute lekua, mantu erdiko ostatua, hain zuzen. Martitzen eguerdia bitartean 40 lagunek emana zuten izena. Irteerak zapaturo izango dira 05:00etan, eta itzulera domekan 21:00etan.

Ikastaroak ere egin daitezke. Bi orduko ikastaroak izango dira egunean, eta langabe eta ikasleek 1.000 pezetako beherapena izango dute. Antolatzaileek adierazi digutenez, batz bestea 650 lagun joan ziren iaz eskiatzera, astero autobus bat.

Formigaleko irteerak amaitzean, Alpeetakoa egingo da. Apirilaren 13an izan-



IRTEEREN PREZIOAK

• Formigalera

Bazkideek

13.500 pezeta

Ez bazkide arrasatearrek

14.000 pezeta

Ez bazkideak

16.000 pezeta

• Alpeetara

Besaideko bazkideek

64.000 pezeta

Ez bazkideak

65.000 pezeta

go da, eta Aste Santuko egunak aprobetxatuz, apirilaren 21a arte egongo dira Tignes Val D'isere-n. Lau-sei lagunendako etxetan hartu dute lekua eta erremontek sei egunean etengabe erabiltzeko izango dira.

Argibide gehiagorako,

Besaideko kideak astelehen, martitzen eta eguaztenero egongo dira Besaideren egoitzan, Aste Santua arte, 18:30etik 19:30era. Iaz 54 lagun joan ziren Aste Santuko irteerara.

Bestalde, Besaideko mendiko eski taldeak urtarrilaren

21 eta 22rako irteera antolatu du Tena bailarara. Pic de Peyrelue eta Portalet-Astun zeharkaldia egingo dute.

Horrez gain, Astunera, Candanchura eta Panticosara joateko for-fait-ak ere badiutuzte Besaiden. Arigibideak: Besaiden.

Gorosabeli omenaldia egin eta denboraldiari ekin behar

Arrasate Errugbi Taldeak etxean jokatu du 2001eko lehen partida. Getxo taldearen aurka arituko da zapatuan, 16:00etan. Mondragoetarrendako ona litzateke irabaztea, aspaldian ez dute eta partidarik irabazi.

Gazte mailakoak Eibarren arituko dira astean. Eibarko taldearekin batera osatu dute gazte mailako Arrasateko taldea eta hauek ere Getxoren aurka jokatu dute. Kadetek ere etxean jokatu dute, zapatuan, 10:30ean, Bilboko Unibersitarioren aurka; eta 10:00etan infantilak arituko dira Ordiziaren aurka.



Patxi Gorosabeli omenaldia egin zion Arrasate Errugbi taldeak Gabonetan.

Gipuzkoako eta Euskal Herriko atletismo txapelketak jokoan

Asteburu honetan jokatuko dira Gipuzkoako eta Euskal Herriko atletismoko txapelketak. Anoetan arituko dira kadete eta junior mailako kirolariak. Arrasate Kirolak Atletiko taldetik zortzi kirolari joango dira, tartean Arrasateko, Bergarako eta Aretxabalako kirolariak.

KADETEAK

- **Iñaki Viteri**
pisu jaurtiketa
- **Jurdana Ayala**
60 m.ko lasterketa
- **Ibai Irastorza**
600 m.ko lasterketa

JUNIORRAK

- **Oscar Gavilan**
pisu jaurtiketa
- **Angel Rivera, bergararra**
60 eta 200 m.ko lasterketa
- **Mikel Apraiz**
200 m.ko lasterketa
- **David Blanco, atxabaltarra**
400 m.ko lasterketa
- **Jabier Garcia, bergararra**
400 m.ko lasterketa



Joan den asteburuan parte hartze libreko probetan egon ziren Anoetan Arrasate Kirolak Atletiko Taldekoak. Azpimarratzekoa izan zen Unai Sarabiak lortutako marka. Izan ere, 60 m.ko lasterketan 7"20eko denbora egin zuen. Loren Avilak ere parte hartu behar zuen, baina mina hartu zuen korrika ari zela eta ezin izan zuen bukatu.

Bestalde, Jonathan Perez

kirolari arrasatearrak, Realarrekin jokatuz pertika jauzian. 4,25 m.ko jauzia egin zuen.

Beste emaitza batzuk:

60 m.tan

- **Angel Rivera**
7"39
- **Remi Diosdado**
7"54
- **Martin Davila**
7"44

Pilotako euskal liga jokoan

Joan den asteburuan hasi zen Euskal Herriko pilota txapelketa eta Mondragoeko pilotariak ere ari dira txapelketa jokatzen. Aurreneko neurketa zaila izan zen oso. Gasteizko Zaramaga taldeko bikotearen aurka jokatuz Errastik eta Zuazubiskarrek. Ordubete pasatxo iraun zuen partidak eta azkenean 22-14 galdu zuten mondragoetarrek. Izan ere, Zaramagako atzelaria oso fin ibili zen eta aurrelariak ere hainbat tantu egin zituen.

Mondragoeko pilotariak asteburu honetan izango dute bigarren neurketa. Oraingoan nafarren aurka jokatuko dute, Txaruta taldeko pilotarien aurka, hain zuzen ere. Baina, Zuazubiskarrekin batera Zugastik jokatuko du aurrealdean. Errasti eta Zugasti elkar ordezkatzeko dira partida bakoitzean.

Neurketa Uarkapen jokatuko da zapatuan, goizeko 11etan.



LASAGABASTER


Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Jolasak, zertarako?

Jolasak, zergatik? Zelako jolasak? Zertan desberdintzen dira hainbat jolas betiko kirol-etatik? Galdera asko dirudite, baina Arrasate Kirolak Proiektuko begiraleek hainbat erantzun eman dizkigute:

Jolasek hainbat barne ezaugarri dituzte. Ezaugarri hauek aztertuz, betiko kirolek, esku-baloia, futbola eta saskibaloiak esaterako, hauetako asko dituzte komunean. Eta funtsean, egoera berberak planteatzen dituzte. Denak zalantzarik gabeko laguntza-oposizio egoerak dira, eta horri esker, puntuazio sistema bat antolatzen dugu; oposizioak ematen duen puntuazio sistema, hau da, aurkakoaren esparruan gola edo saskia sartzetik datorren puntuazioa.

Ikuspuntu horretatik, jolas tradizionalek bestelako aberastasuna ematen digute, kirol



SFX ikastetxeko mutilen futbol taldea.



La Merced ikastetxeko mutilen futbol taldea.

motek ematen ez diguten aberastasuna.

Jolas hauetan alda daitezkeen rola ematen dira. Esate baterako, harrapaketa jolasetan harrapatzaile eta iheslari izan zaitezke. Horrela, beste jolaskideekin erlazio aberatsagoak lortzen dira eta, oro har, kirol tradizionalek ikutzen ez dituzten beste balore batzuk lantzeko aukera izaten da: kideen arteko erlazio motak planteatzen dira.

Teoria horri jarraituz, AKPko kideek neska-mutikoendako antolatzen dituzten ekintzetan eta jolasetan probetxatzen dute hortik atera daitekeen aberastasuna. Pedagogikoki, aberats izate horrek tresna oso interesgarri bihurtzen du. Gainera, hezkuntza aldetik balio handia du horrek: kirolek duten gizarte errotzea gainditu eta jolasen garrantzia gizarteratzen saiatuko gara.

Asteburuko hitzorduak

Urtarrilak 13, zapatua

Urtarrilak 14, domeka

AURREKIROLA

👉 SASKIBALOA

Gazteluondon

- 10:00** S. Viator A - Aramaio
SFX C - SFX St
- 10:45** SFX A - Musakola
SFX U - S. Viator B
- 11:30** SFX D - Erguin
SFX E - La Merced B
- 12:15** SFX B - La Merced A

MULTIKIROLA

👉 ARETO FUTBOLA

NESKAK

Musakolan

- 10:15** SFX A - Erguin
- Jturripen
- 11:45** La Merced - SFX U

MUTILAK

Jturripen

- 10:15** Erguin - SFX B
- 12:30** S. Viator A - SFX A2
- Musakolan
- 11:00** SFX U - SFX A1
- 11:45** La Merced - Musakola
- 12:30** Aramaio - S. Viator B

INFANTILAK

👉 SASKIBALOA

Autobusa Garibaien
S. Viatorren

NESKAK

- 09:30** SFX - S. Viator A
- 10:30** S. Viator B - Almen

MUTILAK

- 11:30** SFX - S. Viator

👉 FUTBOLA

Autobusa Garibaien

NESKAK

Atxabalpen

- 09:00** La Merced - Arrasate
- 09:00** SFX - Almen

MUTILAK

Musakolan

- 10:30** SFX - Aranzadi
- Almenen
- 10:30** Txantxi DBH 1B -
La Merced

FINALERDIAK

👉 ERRUGBIA

Garagartzan

- 10:00** Arrasate - Ordizi

ALEBINAK (Espezializazioa)

👉 7KO FUTBOLA

Atxabalpen

- 09:00** Txiki Onak - Joma
- 09:00** SFX - Canas Esteban
- 10:00** Erguin-S.Viator -
Indo Mirvat

IÑAKI BRUÑA (MARGOLARIA)

«Margolan bakoitza esperimentazio bat da»

Iñaki Bruña mondragoetarra perkusio jotzaile moduan ezagutu izan dugu betidanik. Hala ere, artista osoa dugu Iñaki, eta horren eredu, Udala auzoko Larrinetxe jatetxean zabaldu duen margolan erakusketa. Otsailaren bukaera arte izango dugu ikusteko aukera.

— Musikari bezala ezagutzen zaitugu. Nolatan orain margolari?

— Aspaldiko kontua da. Orain zortzi bat urte hasi nintzen margotzen, akuarela kaxa oparitu zidatenean. Bi erakusketa egin nituen, eta zenbait lehiaketatan parte hartu nuen. Gero, bertan behera utzi behar izan nuen. Orain etxean aurkitu ditut orduko lanak, eta horiek plazaratzeko irrikia sortu zitzaidan. Baina, margoa ez ezik, argazkilaritza, artisautza, diseinua... ere gogoko ditut.

— Musikaren eta margogintzaren arteko berdintasunik badago?


— Nahi duenak aurki diezaieke antzik. Adibidez, margolan bat ikustean abesti bat sor dezakezu, eta alderantziz, abesti bat gustatzen bazaizu, horrekin margolana egin dezakezu. Norberaren kontua da.

— Zein da zure estiloa?

— Ez dut estilo zehatzik, ez eta jarraitzen saiatzen naizen eraginik ere. Gustuko margolariak badituzte, asko, baina margotzen hasten naizenean ez dut inorengan pentsatzen; margotu egiten dut, besterik ez, eta aldi bakoitzean gauza desberdinak irteten zaizkit.

— Teknikarik izango duzu...

— Bai, denetarioak. Hasieran, akuarelak egiten nituen. Ondoren, beste



teknika batzuk gehitu nizkion akuarelari: akrilikoa, argizaria, pastela... eta horrelakoak dira erakusketan ditudan gehienak. Suaren bidez ere egin izan dut lan: orria suaren gainean ipintzeri dut kolore apur bat hartu arte, eta ondoren margotu egiten dut. Margolan bakoitza esperimentazio bat da niretzat. Batzuetan, ideia edo sentimendu bat dut, eta horixe azaleratu nahi dut; bestetan, kolore bat lantzeko gogotik jaiotzen dira koadroak. Eta unean uneko umoreak ere eragina izaten du margotzeko moduan.

— Zer islatu nahi izaten duzu margolanetan?

— Margolariak sentimenduak adierazten ditu. Hortik aurrera, norberak nahi duena pentsa dezake. Norberak izango ditu bere arrazoiak margolan bat gustuko duen edo ez erabakitzeko.

aste gazte

■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA

• Intsumisioa edo objektioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta paperak betetzeko behar duzun informazioa eman-goz dizugu.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Estatu Batuetako eta Kanadako eskoletan gaztelaniazko irakasle bisitariendako laguntzak, esperientziadun irakasleei zuzenduta. Epea: urtarrilak 19.

• 2000-2001 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikastetxeetako ikasleen eguneroko garraio gastuak ordaintzeko ohiz kanpoko diru laguntzak. Epea: urtarrilak 26.

■ LANA

• Elorrioko Udalerako lorezaina behar da. Epea: urtarrilak 18.

• Irungo Udalak proiektu teknikaria, sistema teknikaria eta programatzailea behar ditu. Epea: irailak 18.

• Hernaniko Udalerako arkitekto teknikoak behar da. Epea: urtarrilak 22.

• Debagoieneko Mankomunitateak hiri hondakin solidoen batze eta garraio zerbitzuko arduraduna behar du. Epea: urtarrilak 25.

■ LEHIAKETAK

• Arrasateko Emakumeen Kontseiluraren logotipo lehiaketa. Zuriatz gain, gehienez ere hiru kolore erabilia sortutako lana, A-4 formatuan aurkeztua. Epea: urtarrilak 31.

• Portugaleteko XV. Komiki Lehiaketa. Gaia libre da, zuri-beltzean edo koloretan, eta lau orrialdeko luzerakoak izan behar dute. Epea: urtarrilak 31.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

«Batzuetan, ideia edo sentimendu bat dut, eta hori azaleratu nahi dut»

Jon Andueza, saritua



Jon Andueza mondragoetarrak Santiago de Compostelako Araganey Fundazioak deitutako gidoi lehiaketa irabazi zuen abenduan. 500.000 pezetako diru saria jaso zuen.

Xabier Zabaleta donostiarrarekin batera aurkeztu zuen Jonek bere proiektua, *Historias de la Medianoche* misteriozko telesail baterako ideia zen.

Pozez, baina era berean, zuhurtasunez, jaso du Jonek saria: «Momentuz, ez du berrietasun handirik ekarriko. Gure proiektuari izen pixka bat emateko balioko du, baina oraingoz ezer gehiagorik ez. Ikusi egin behar».

Historias de la Medianoche alde batera utzita dagoen arren, badiu esku artean beste lan batzuk Jonek: *Fatimatu, la llamada del desierto* dokumentala egun gutxi barru bukatuko dute muntatzen, eta udarako telesail baterako gidioak idazten dihardu.

125.000 pezeta, arte plastikoen lehiaketako saria

Hirugarren aldiz antolatu du Gure-Leku tabernak arte plastikoen lehiaketa. Edozein gai, neurri eta teknikarekin egingako artelanak aurkeztu ahal izango dira otsailaren 28a arte. Aurkeztutako guztien artean, onenak aukeratuko dira Gure-Lekun bertan erakusteko. Jendeak bi boto emango ditu, eta horiek erabakiko dituzte lau finalistak; ondoren, horien artean aukeratuko du epaimahaiak, apirilaren 22an. Agustin eta Melchor Murillo tabernariak, Cesar Cimiano eta Jose Luis Heriz izango dira epaileak. Irabazleak 125.000 pezeta sakelaratuko ditu. Berritasun moduan, Chillida-Leku bisitatzeko hamar sarrera zozkatuko dira botoa ematen dutenen artean.



Iaz Daniel Laskurain bergararrak irabazi zuen, lan honekin.

GAZTEENDAKO AUKERA

«Herriko eta inguruko artistei aukera bat ematearren antolatu genuen sariketa hau. Saria irabazteaz gain, euren lanak erakusteko aukera dute parte hartzaileek», diote Agustin eta Melchor Muri-

llok. Euskal Herri osoko lanak jasotzen dituzte urtero. Orain bi urte Eluska Zabalo mondragoetarrak irabazi zuen, eta iaz, Daniel Laskurain bergararrak. Lehiakide gehienak artista gazteak izaten dira.

Juanjo Altuna margolaria, bolada onean

Bere lanen erakusketak antolatzea; horra hor Juanjo Altuna Akizu margolari mondragoetarrak etorkizunerako duen egitasmoa, abenduan UNEDek antolatutako margolan lehiaketa irabazi ondoren. Orain, Durangon du erakusketa Juanjok, eta laster Eibarren zabalduko du beste bat.

IRUDIA ETA KOLOREA

Extremadurako Plasenciako UNEDek antolatu zuen lehia-



keta, eta Zona Industrial ize-neko lanarekin gailendu zen mondragoetarra. 300.000 pezetako saria jaso zituen. Espresionismo geometrikoa deritzon estiloa

lantzen du Juanjo Altunak; lan sarituan horixe zen nagusi: «Figurari baino, koloreari ematen diot nagusitasuna», dio berak. Izan du betarik bere estiloa aurkitzeko, izan ere, txikitandik dihardu margotzen; aita margolaria zuen, eta hari begira ikasi zuen.

Bergaran eta Elorrión margo eskolak ematen ditu Juanjok, UNEDen. Iaz 14 sari irabazi zituen Bergaran bizi den mondragoetar honek.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Danona
KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

Bi zoro ta zu **Zapaturu** 12:00 - 14:00



Mikel Lizarralde eta Haika Aizpurua 22 eta 17 urteko bi gazte dira, zein baino zein alai eta bromazaleagoa. Entzuleekin ondo pasatzea dute gustuko eta horretan ahalegintzen dira zapaturu. Zinema estreinaldiak, bromak, bitxikeriak, famatuekin elkarrizketak, sexua, bidaiak, lehiaketak... eskaintzen dizkigute.

Noiz eta zelan sortu zen Bi zoro ta zu?

MIKEL: Kasualitate hutsez. Edu Abasolorekin topo egin nuen *A Ciegas* filmean figurante lege. 1997ko martxoan antenaratu ginen lehen aldiz.

HAIKA: Edu Abasoloren lekukoa hartu nuen, Gasteizera lanera joan behar izan zue-nean. Garai hartan ere Arrasate Irratian nengoen. Proposamena egin zidan Mikelek eta gustura eutsi nion.

Zeinendako da?

M/H: Hasiara batean, gazteendako zela uste bagenuen, edozein adinetako jendearendako da. Denetarik eskaintzen dugu.

Irratian aritzen zareten arren, telebista ere probatu duzue. Aukeraterik baduzue?

M: Bi medioak gustatzen zaizkit, unearren arabera. Lehen, telebista nahiago nuen arren,

irratia pisu gehiago du orain niretako.

H: Telebista gustatzen zait gehiago, dena dela, ez nuke irratia alde batera utziko.

Bi zoro ta zu ezean, zer programa egingo zenukete gustura?

M: Gaueko saio bat, duda barik. Intimitate eta entzuleekiko gertutasuna atsegin dut.

H: Irratian, oraingoaren antzeko bat. Telebistan, berriz, musika saioak edo arratsaldeetan hain ohikoak diren zabor-programa horietako bat.

Gustuko irratia? Eta gustuko esataria?

M: Dialez aldatzea gustatzen zait. Esataria, berriz, RNEko Pilar Socorro, adibidez. Bera izan zen lehen saio interaktibo bat egiten.

H: Los 40 Principales, musikarengatik, baina saioei zerbait falta zaiela esango nuke. Esataria, gazteendako bada, Klaudio Landa. Torrelledo ere gustatzen zait, nahiz eta askotan politika eta lana nahasten dituen.

Entzuleak programako parte dira irratia joan-etorriko bidea delako. Parte hartzeko gonbita egiten digute, beraz, lehiaketan eta beste ataletan. Kritikak onartzen dituztela ere esaten dute.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
Urtarrilak 19: **Sick of it all**

Sarrera **1**

zozketatuko dugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidalai gurera: Arrasate Press, Otalora 31
edo deitu Arrasate Irratia: **943 71 17 31.**

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketak eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



Irudi nahiko zahar baina polit batekin estreinatuko dugu mende berria gure aldizkarian. Hain zuzen ere, XIX. mende bukaerako argazki batekin. Argazkia bera polita izateaz gain, argazkian azaltzen diren bi neskatilak nabarmendu behar dira, eurak dira-eta argazkiko elementurik politenak, (edo halaxe uste zuten, behintzat, orduko mondragoetarrek).

Ines eta Maria Mercader Oihanguren "Txantxotena" dira neskatilak eta 16 urte zuten argazkia atera zietenean, Santa Barbarako parkean.

Duda barik neska politik izango ziren, bai. Gure berriemaileak kontatu digunez, Mondragoeko bertsolari batek bertso bat eta guzti bota zion Inesi; honako hau:

Goiko kaletik
beheko kaleraino,
ez dago
neska politagorik
Ines Txantxotena baino

Argazkia eta berriemailea:
A. Gonzalez Mercader.



GRONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



HAURTZAINDEGIA

ZERO urtetik

9.300 pzta. hilean

HAUR hezkuntza


LEHEN hezkuntza

D. B. H.

***D* eredua**



943 79 27 73



la merced
IKASTETXEA



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIARI

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIARI

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTROGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik